# Inmigrazio Jardunaldiak
# *Jornadas de Inmigración*

**ERMUA 2017**

**Apirilaren 29tik Maiatzaren 13ra** | *del 29 de Abril al 13 de Mayo*



**Beldurrak harresiak eraikitzen ditu**

**Elkartasunak zubiak**

***El miedo levanta muros***

***El corazón los derriba***

# Beldurrek banatu egiten gaituzte; elkartasunak, ordea, batu.

Une gogor eta erabakigarriak bizitzen ari gara. Errefuxiatuen drama, gerratik, esplotaziotik eta miseriatik ihesi, milaka hildako uzten ari da Europako atarian, gure usterik sendoenak kolokan jarrita.

Europako gobernuen erantzuna maltzurra da. Denak balio du errefuxiatuak Europara hel daitezen eragozteko: murruak, alanbrehesiak, akordioak herrialde mugakideetako gobernuekin, EBren jendarme-lana egiteko, asilo-eskubidea eskuratzea eragozteko eta pertsona horiek kanpamenduetan atxikitzeko, bizitza duina izateko inolako baldintzarik gabe. EBk aurrekontu dirudun baino dirudunagoa onartu du mugak militarizatzeko, Frontexen agindupean, eta deportaziorako: 12.909 milioi euro gastatu ditu 2000 eta 2015 artean.

Politika horiek, Europako Batasunaren eraketa-itunen oinarrietan dauden funtsezko eskubideak urratzen dituztenek, mezu nagusi bat zabaltzen dute: pertsona horiek, migratzaileak eta errefuxiatuak, arriskutsuak dira, beraz, gure burua babestu behar dugu. Eta, mehatxu horren aurrean, badirudi denak balio duela. Beldurraren politika da.

Baina ez dira soilik mugetako hesiak. Trumpen politika xenofoboa kritikatzen duen EBk, Estatu Batuetako presidenteak Mexikorekiko mugan hesia eraiki nahi duelako eta ehun milaka migratzaile kanporatzeko mehatxua egiten duelako, gauza bera egiten du bere lurraldean.

Lotsaren Zuzentaraua onartu zenetik, 2008an, 2015era arte, EBk 1.935.920 lagun kanporatu ditu. Baina nola, antza, bi milioi horiek ez diren nahikoa, Europako Batzordeak ehun milaka lagunen kanporaketa azkartzeko plan bat onartu berri du, 2017ko martxoan, dagoeneko hemen dauden pertsonak (batzuk duela urte asko), legez kanpoko egoeran, azkar batean kanporatzeko; horretarako, beste neurri batzuen artean, pertsona horiek Atzerritarrak Barneratzeko Zentroetan atxikitzeko epeak hedatu ditu.

Espainiako estatuko gobernua, zeinak EBn sinatu zituen gutxieneko harrera-konpromisoak betetzeari uko egiten jarraitzen dion, ikasle aurreratua da kanporaketaren alorrean. Atzerritarrak Barneratzeko Zentroetako atxikipen-politikari emandako erantzuna ikusita, orain zuzenean komisariatik egiten dira kanporaketak. Kanporaketa espresak esaten zaie. 72 orduan baino gutxiagoan egiten dira, gutxieneko berme juridikorik gabe eta profil etnikoagatik ausazko sarekada polizialak eginez, deportatzeko hegaldietan dauden jarlekuen arabera. Gaur egun, horrela kanporatzen dira pertsona gehienak gure herrialdean.

Eta panorama hau dugula, **zer egin dezakegu?** Esku hartzeko funtsezko bi esparru daude: salaketa politikoa eta elkartasunaren antolaketa.

Maila pertsonalean, gure beldurrak eta aurreiritziak aztertuz, eta oinarrizko eskubiderik gabe dauden hainbeste lagunen tokian jartzeko moduko nahikoa enpatia garatuz.

Drama hau bilakatzeko, non pertsonak legez kanpoko gizakitzat jotzen diren, harago joan beharra dago, bihotzarekin begiratu behar da, sentitzea eta gerturatzea ahalbidetzen digun begirada horrekin, Beldurretik eta besteari gizatasuna kentzetik iraunarazitako aurreiritziak deseginez.

## Beldurretik eta besteari gizatasuna kentzetik sortutako aurreiritziak desegin

### Egungo migrazio-tragediaren arrazoiak politikoak dira.

EBren politikak Mediterraneoa munduko hobi komun ireki handiena izan dadin bultzatzen ari dira, eta milaka pertsona kanporatuak izan daitezen bultzatzen, haien familia-loturak hautsita eta etorkizun hobea bilatzeko eskubidea ezinezkoa bilakatuta. **Politika horiek salatu** egin behar dira, eta ARGI UTZI EZ DIRELA EGITEN ARI NIRE IZENEAN

**Elkartasuna antolatu.** Euskal jendarteak behin baino gehiagotan erakutsi du prest dagoela harrera-politiketan parte hartzeko. Baina, paradoxikoki, badirudi ez dagoela hartzeko errefuxiaturik. Garrantzitsua da lan hori ez geratzea soilik erakundeen esku; izan ere, orain arte, ez dute eraginkortasun handirik erakutsi haien adierazpenak ekintza bilakatzeko orduan. Sare solidario bat izateak harrera egiteko benetako aukerak erakutsiko ditu, presioa eragingo die erakundeei eta gure usteen arabera jokatzea ahalbidetuko digu



# El miedo levanta muros, el corazón los derriba

*Asistimos a momentos duros y cruciales. El drama de las personas refugiadas, tratando de huir de situaciones de guerra, explotación y miseria, deja un reguero de miles de muertes a las puertas de Europa que pone a prueba nuestras más firmes convicciones.*

*La respuesta de los gobiernos europeos es perversa. Todo vale para impedir que lleguen a Europa: muros, alambradas, acuerdos con los gobiernos de los países limítrofes para que hagan de gendarmes de la UE, impidan el acceso al derecho de asilo y retengan a estas personas en campamentos sin condiciones para una vida digna. La UE aprueba un ingente presupuesto destinado a la militarización de las fronteras bajo la batuta de Frontex y a la deportación: 12.909 millones de euros gastados entre 2000 y 2015.*

*Esas políticas, que violan derechos básicos que la Unión Europea afirma defender, destilan un mensaje central: Esas personas, migrantes y refugiadas, son un peligro del que debemos protegernos. Y, ante esa amenaza, al parecer, todo vale.*

## *Es la política del miedo*

*Pero no son solo los muros en las fronteras. La misma UE que critica la política xenófoba de Trump, con su proyectado muro en la frontera con México y la amenaza de expulsión de cientos de miles de migrantes, hace lo propio en su territorio.*

*Desde la aprobación de la Directiva de la vergüenza en 2008, hasta 2015, la UE ha expulsado a 1.935.920 personas. Pero como dos millones de personas expulsadas le deben saber a poco, la Comisión Europea acaba de aprobar, en marzo de 2017, un plan para acelerar la expulsión de cientos de miles de personas, que ya están aquí, en situación irregular, algunas desde hace muchos años, ampliando para ello los plazos de retención en Centros de Internamiento, entre otras medidas.*

*El gobierno español, que sigue rechazando el cumplimiento de los compromisos mínimos de acogida que suscribió en la UE, es alumno aventajado en materia de expulsión. Vista la contestación que se ha conseguido a la política de encierro en los Centros de Internamiento, ahora la expulsión se practica directamente desde comisaría. Son las llamadas expulsiones exprés. Se realizan en menos de 72 horas, sin garantías jurídicas mínimas y a partir de redadas policiales aleatorias por perfil étnico y en base a las plazas disponibles en vuelos de deportación. A día de hoy, es esta la manera como se practican la mayoría de expulsiones en nuestro país.*



## Y ante este panorama **¿qué podemos hacer?**

*Hay varios ámbitos de intervención en los que es importante incidir, el ámbito personal y el ámbito social.*

*En el ámbito personal, revisando nuestros miedos y prejuicios, y desarrollando la empatía necesaria que nos permita estar en la piel de tantas personas privadas de sus derechos fundamentales.*

*Para transformar este drama en el que los seres humanos son vistos como ilegales, es necesario ir más allá, es necesario mirar con el corazón, esa mirada de afecto que nos permite sentir y acercarnos, derribando los prejuicios sostenidos desde el miedo y la deshumanización del otro.*

*En ámbito social, la denuncia política y la organización de la solidaridad.*

*Las causas de la actual tragedia migratoria son políticas. Y son las políticas de la UE las que están contribuyendo a que el Mediterráneo se haya convertido en la mayor fosa común abierta del planeta y a que millones de personas sean expulsadas, rompiendo vínculos familiares y haciendo imposible el derecho a buscar un futuro mejor. Hay que* ***denunciar dichas políticas*** *y dejar claro que se realizan*

## *"NO EN MI NOMBRE"*

***Organizar la solidaridad.*** *En repetidas ocasiones se ha mostrado la disposición de la sociedad vasca a involucrarse en políticas de acogida. Pero, paradójicamente, parece que no hubiera personas refugiadas a las que acoger. Es importante que esta labor no quede exclusivamente en manos de las* instituciones que, hasta el momento, no han mostrado una gran eficacia a la hora de traducir en hechos sus declaraciones. La existencia de una red solidaria mostrará las posibilidades reales de acogida, presionará sobre las instituciones y nos permitirá actuar en base a nuestras convicciones.

"Respira del todo esta brisa
ponte en la piel del otro
A ver cuánto dura tu sonrisa"

*Panzers rap taldea*

# Harresi eta hesi gehiago Europan

**Hungaria:**
175 kilometro Serbiarekiko mugan

**Bulgaria:**
Turkiarekiko mugan

**Espainia:**
Ceuta eta Melillako perimetroa Marokorekin

**Grezia:**
Turkiarekiko muga

**Norvegia:**
Errusiarekiko muga

**Calais:**
Erresuma Batua-Frantzia muga

**Austria:**
Esloveniarekiko muga

Europako mugetara iristea lortzen duten pertsonek gero eta traba, harresi eta giza eskubideen urraketa gehiago jasan behar dituzte. Estatuak harresi eta hesien eraikuntza sustatzen ari dira, "Europa gotorlekuko" mugak blindatzeko asmoz. Reuters agentziaren arabera, dagoeneko badaude eraikita eta aurreikusita, Europan, 1.200 km egingo dituzten hesiak, 570 milioi dolar kostatuta:

# *Nuevos muros y vallas en Europa*

*Para aquellas personas que consiguen llegar a las fronteras europeas los obstáculos, los muros y las violaciones de derechos humanos se multiplican. Los estados están impulsando la construcción de muros y vallas con las que pretenden blindar los límites de la "Europa fortaleza". Según la agencia Reuters, ya hay construidos o proyectados 1.200km. de vallas en Europa, con un coste 570 millones de dólares:*

***Hungría:***
*175 kilómetros en su frontera con Serbia*

***Bulgaria:***
*frontera con Turquía*

***España:***
*perímetros de Ceuta y Melilla con Marruecos*

***Grecia:***
*frontera con Turquía*

***Noruega:***
*Frontera con Rusia*

***Calais:***
*frontera Reino Unido-Francia*

***Austria:***
*frontera con Eslovenia*

*EUROPA ZATITZEN DUTEN HARRESIAK*

*LAS MURALLAS QUE DIVIDEN EUROPA*



## Europako Batasunak eta Espainiako Estatuak ez dituzte betetzen beren konpromisoak

2015eko irailean, Europako Batasunak konpromisoa hartu zuen 2 urtean 170.000 errefuxiatu hartzeko. Nahiz eta Genevako Itunak estatuak derrigortu gerretatik ihesi dabiltzanak babestera eta hartzera, baztertu egin zituen urte hartan iritsi eta asiloa eskatu zuten milioi bat lagunen % 80 baino gehiago; gehienak etorri ziren Siria, Irak eta Afganistango gatazketatik ihesi.
Haatik, epea bukatzeko hil gutxi batzuk falta direnean, Europako Batasunak 13.548 errefuxiatu besterik ez du hartu, bere konpromisoaren % 8 beteta. Espainiako estatuak, berriz, 851 lagun baino ez ditu hartu, konpromisoaren arabera hartu behar zituen 16.000 pertsonatik, hau da, % 5,3.

## *La Unión Europea y el Estado Español incumplen sus compromisos*

*En setiembre de 2015, la Unión Europea se comprometió a acoger en el plazo de 2 años a 170.000 refugiados. A pesar de que la Convención de Ginebra obliga a los estados a dar protección y acogida a quienes huyen de las guerras, dejaba de lado a más del 80% del millón de demandantes de asilo que llegaron ese año, la mayor parte de ellos huyendo de las conflictos de Siria, Iraq y Afganistán .*
*Sin embargo, cuando faltan solo unos pocos meses para vencer el plazo, La Unión Europea solo ha dado acogida a 13.548 refugiados, un 8 % del compromiso adquirido. El Estado Español por su parte solo ha acogido a 851 de los 16.000 refugiados que incluía el compromiso, lo que supone el 5,3 %,*

## *Número de personas ahogadas en el Mediterraneo*

*Según los datos de ACNUR, 2015 fue el año en el que más personas atravesaron el Mediterráneo para llegar a Europa: más de 1 millón de llegadas. En 2016 la cifra fue de 327.000.*
*Sin embargo, a pesar del descenso de número de llegadas, como consecuencia de las medidas tomadas para impedir el paso más corto entre Turquía y las islas griegas de Egeo, la cifra de personas ahogadas en el Mediterráneo fue la más alta de la Historia: 4759 muertos. Los refugiados y emigrantes se ven forzados con el cierre de fronteras a buscar rutas cada vez más caras y peligrosas.*

## Mediterraneoan hildakoen kopurua

ACNUR-en datuen arabera, 2015ean zeharkatu zuen Mediterraneoa pertsona-kopuru handienak Europara iristeko, milioi bat lagunek baino gehiagok. 2016an, 327.000 pertsonak egin zuten. Halere, pertsona gutxiago etorri diren arren, Turkiaren eta Egeoko uharte greziarren artean ibilbide motzena eragozteko hartutako neurrien ondorioz, Mediterraneoan itotako lagunen kopurua historiako handiena izan zen: 4.759 hildako. Errefuxiatu eta migratzaileek, mugak itxita, gero eta ibilbide

**ERREFUXIATUEN HARRERA** | ***ACOGIDA DE REFUGIADOS***






# Egitaraua

## Apirilak 29 larunbata

GERNIKARA MARTXA" Ongi Etorri Errefuxiatuak-1937- 2017 "

**10:00** Gipuzkoako zutaberi HARRERA Sallabenten

**10:30** EKITALDIA Ermuko Plazan

**11:30** Ermutik Gernikara MARTXAREN IRTEERA

## Maiatzak 2 asteartea

ERAKUSKETAren inaugurazioa **"Errefuxiatuak Ongi Etorri"**, SOS Arrazakeria eta MUGAK erakundeena.

**SOS arrazakeria**ren eskutik BISITA GIDATUAeta luntxa

**19:00** Lobiano Kulturgunean

Erakusketa zabalik egongo da 18:00etatik 20:00etara Maiatzaren 2tik 13ra

Astean zehar Ermuko bigarren hezkuntzako ikasleentzako bisita gidatuak egongo dira

## Maiatzak 3 asteazkena

HITZALDIA: Zehaztu gabe

**19:00** Lobiano Kulturgunean

## Maiatzak 4 osteguna

ZINE-KLUBA: "El otro lado de la esperanza", **Aki Kaurismäki**-rena

**20:30** Ermua Antzokian

MUDO-DROGOT-en eskutik

## Maiatzak 5 ostirala

MARRAZKI TAILERRA Ermuko Udal Margo Eskolan, **Mohamed Azgouagh** margolari berberaek zuzendua

**ANTZERKIA**: "Tras la Frontera" **Plataforma Tirante** taldearekin, CEAR-Euskadiren laguntzaz

**19:30** Plazan

## Maiatzak 6 larunbata

KULTUR-ARTEKO JAIA

Goizeko **11:30**etatik aurrera Ermuko Plazan

Jaiaren HASIERAKO IKUSKIZUNA **Sutegi Antzerkia** eta **Mohamed Azgouagh** margolariren parte hartzearekin

**12:00** HAURRENTZAKO JOKUAK, **Antxitxiketan**-ekin

**12:00** PERKUSIO TAILERRA **Mustapha Agharban**-ek zuzendua

**13:00** Kontzertua: "**Aldo Milá**", Angola

**14:30** Kultur-arteko HERRI BAZKARIA

**17:00** III BORROKA SENEGALDARRAREN TXAPELKETA "**Jaapo Lyguey**" perkusio afrikarraren taldeak girotua

**18:00** **" Kino ait idrissen trio"** talde berberearen KONTZERTUA

**19:30** KONTZERTUA "**Elh malick tribal band**", Senegal

*Eta gainera: Hennazko tatuajeak, txirikorda afrikarrak, azkazalen margoketa kolonbiarra, idatzi zure izena arabieraz, Ermuko ikastetxeetan egindako hormirudia eta marrazkien erakusketa ...

# *Programa*

## *Sábado 29 de Abril*

*MARCHA A GERNIKA" Ongi Etorri Errefuxiatuak-1937- 2017 "*

***10:00** RECIBIMIENTO a la columna de Gipuzkoa en San Lorenzo*

***10:30** ACTO en la Plaza de Ermua*

***11:30** SALIDA DE LA MARCHA desde Ermua a Gernika*

## *Martes 2 Mayo*

*Inauguración de la EXPOSICIÓN **"Errefuxiatuak ongi Etorri"**, de SOS Racismo-Gipuzkoa y MUGAK*

*Lunch y VISITA GUIADA de la mano de **SOS racismo***

***19:00** Lobiano Kulturgunea*

*La exposición estará abierta de 18:00 a 20:00 desde el 2 al 13 de Mayo*

*Durante la semana habrá visitas guiadas para l@s estudiantes de los centros de secundaria de Ermua*

## *Miércoles 3 de Mayo*

*CHARLA: Por concretar*

***19:00** Lobiano Kulturgunea*

## *Jueves 4 de Mayo*

*CINE-CLUB: "El otro lado de la esperanza", de **Aki Kaurismäki***

***20:30** Ermua Antzokia*

*En colaboración con MUDO-DROGOT*

## *Viernes 5 de Mayo*

*TALLER DE DIBUJO en la Escuela Municipal de Pintura , impartido por el pintor amazigh **Mohamed Azgouagh***

***TEATRO** "Tras la Frontera" con el grupo **Plataforma Tirante**, con la colaboración de CEAR-Euskadi*

***19:30** Plaza*

## *Sábado 6 de Mayo*

*FIESTA INTERCULTURAL a partir de las **11:30** de la mañana en la Plaza*

*ACTO DE APERTURA de la Fiesta, con la participación de **Sutegi Antzerkia** y el pintor **Mohamed Azgouagh***

***12:00** JUEGOS INFANTILES, con **Antxitxiketan.***

***12:00** TALLER DE PERCUSION, dirigido por **Mustapha Agharban***

***13:00** CONCIERTO del grupo **Aldo milá,** de Angola*

***14:30** COMIDA POPULAR intercultural*

***17:00** III CAMPEONATO DE ERMUA DE LUCHA SENEGALESA, con la participación del grupo de percusión **"Jaapo Lyguey"***

***18:00** CONCIERTO del grupo amazigh **" Kino ait idrissen trio"***

***19:30** CONCIERTO del grupo **"Elh malick tribal band"**, de Senegal*

**Además: tatuajes de henna, trenzas africanas, pintura de uñas colombianas, escribe tu nombre en árabe, exposición de murales y dibujos realizados por el alumnado de los centros escolares de Ermua…*

---

**Antolatzaileak | *Organizan***

Eguarbitza MisioTaldea // Komite Internazionalistak // Caritas // Asociación de Amig@s de Pueblo Saharaui- Hagunia // Urko-Punta // Etorki(n)zuna // PAACE- Ermuko afrikarren Elkartea

**Laguntzaileak | *Colaboran***

Ermuko Ikastetxeak // Antxitxiketan // Sutegi Antzerkia // SOS Arrazakeria-Mugak // CEAR-Euskadi // Udal Margo Eskola

**Babeslea | *Patrocina***

Ayuntamiento de Ermua

*Ermuko Udala*

# ERMUA-GERNIKA

**APIRILAK 29an DENOK GERNIKARA**

Gerrarik EZ !! Ongi Etorri Errefuxiatuak !!

ongi etorri Gernika 2017

bienvenido • bienvenue • welcome • الترحيب

Izena eman: 620 444 115 telefonoan edo IDOIAren dendan (Zubiaurre, 5)

**Informazio gehiago:** https://ongietorrierrefuxiatuak.info/gernika2017




**10:00etan:** Gipuzkoako zutabeari HARRERA Sallabenteko eskolan
*Recibimiento a la columna de Gipuzkoa en la escuela San Lorenzo*

**10:30etan:** EKITALDIA Ermuko Plazan
*Acto en la Plaza de Ermua*

**11:30etan:** Autobusez irtengo gara MUNITIBARera
*Salida en autobús a Munitibar*

**12:00etan:** MUNITIBARen Markina eta Lekeitioko zutabeekin elkartu eta handik Gernikara oinez iritsiko gara. Nahiago dutenek, autobusez jarraituko dute Gernikaraino
*Encuentro en Munitibar con las columnas de Markina y Lekeitio. Desde allí iremos caminando hasta Gernika. Quienes prefieran, podrán seguir en autobús hasta Gernika*

**16:00etan:** Euskal Herriko beste zutabeekin bat egin eta Gernikara helduera
*Encuentro con el resto de columnas de Euskal Herria y llegada a Gernika*

**21:00etan:** Ermura itzuli autobusez
*Regreso a Ermua en autobús*